

Usaimena

Lurrina kanporatzen duten substantziak usaintzen ditugu, usaimena usainak hautemateko erabiltzen da.
Sudurra da usaimenaren organoa.

Sudurrak bi **sudur-hobi** ditu, barrutik **usaimen-mukosaz** estalita. Hauek dira sudur barruan aurkituko ditugun atalak:

- **iletxoak**
- **pituitarioa**
- **usaimen-nerbioak**

Substantzien lurrina sudur-hobiak zeharkatu eta pituitario horiraino heltzen da. Haren atzealdean dauden usaimen-nerbioek usaina antzeman eta informazioa garunera eramaten dute, hark interpreta dezan.

Pituitarioari esker, milaka usain ezagutzeko gai gara.

Gomendioa→ Oso garrantzizkoa da sudurretik arnasa hartzea, eta ez ahotik, hotzeririk ez izateko.

Geruza busti batek estaltzen du sudur-hobien barrualdea, airea berotu eta hezetzeko. Horrelaxe babesten gaitu hotzeritik. Hotzeria dugunean, usaimena galtzen dugu; izan ere mukiek galarazi egiten dute usainak pituitaria iristea.





